



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

112. INFORMAZIO BULETINA

> 2016ko Ekaina



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenarako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Iparraldeko eta Gipuzkoako 350 ikaslek hartu dute parte Euskal Eurohiriko eskola-trukeetan

2016ko ekainaren 1ean egin da Euskal Eurohiria garatzeko mugaz bestaldeko agentziak bultzatutako eskola-trukeen amaiera-jardunaldia. Jardunaldian, Euskal Eurohiriko 16 ikastetxetako 12 eta 15 urte arteko 350 ikaslek korridore ekologikoen inguruan taldeka prestatu dituzten lanak aurkeztu dituzte.

2005ean abian jarri zituztenetik, topaketa horien helburua Eurohiriko kultura, hizkuntza eta paisaia arloko aberastasuna ezagutaraztea, herritarren artean Euskal Hiria zabaltzea eta ingurumen arloko sentsibilizazioa areagotzea izan da ikasleak partaidetzarako prestatzeaz eta talde-lana bultzatzeaz gain.

Informazio gehiago:

http://www.eurohiria.org/index.php?id=105&L=0&tx_ttnews%5Btt_news%5D=459&cHash=ff04facbdb70429d1c93db07b922d52f



> **Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseiluak Europako balioak sendotzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute**

Gipuzkoako Foru Aldundiak gonbidatuta, Pirinio Atlantikoetako Kontseiluak (CD64) ekainaren amaieran egin du lan-batzordea Donostian. Presidenteorde nagusiak, Max Brisson-ek zuzenduta, lan-batzordean Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Batzordeko 27 ordezkari politikok eta teknikarik hartu du parte. Gai-zerrendak 15 puntu bildu ditu eta horien inguruko eztabaida egin dute. Ondoren, bertaratutakoek foru-jauregia bisitatu dute gidatutako bisitan.

Hitzorduaz baliatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseiluak "Brexit" izenekoari buruzko komunikatua argitaratu dute elkarrekin. Lurralde mugakide gisa, haien kezka agertu dute Erresuma Batuko hautesleek adierazitako asmoarekiko errespetu handienarekin emaitza horrek Europa irekiagoa eta herritarren zerbitzura dagoena eraikitzeko garaian izango dituen ondorioak direla eta. Era berean, Gipuzkoa - Pirinio Atlantikoen arteko lankidetzeta Europar Batasunaren eraikuntza-ezaugarria denez, Erresuma Batuan gertatu denak eraikuntza horren aldeko ahaleginak handitzera eta Europako proiektuaren balioak sendotzera animatzen ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseiluak 2005. urtetik daramate elkarlanean sinatutako hitzarmenen bidez. Azken hitzarmena 2016ko martxoan sinatu zuten Baionan eta bi erakundeen arteko eskumen komunak ditu oinarri: gizarte-politikak (biek bideratzen dute gure aurrekontuen zati handiena), kultura, gazteria eta kirolak, lurralde-garapena eta garapen iraunkorra, turismoa, berdintasun-politikak eta administrazioaren modernizazioa.

Informazio gehiago:

http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/2823/diputacion-y-consejo-pirineos-atlanticos-comprometen-seguir-fortaleciendo-valores-europeos-ante-%E2%80%98brexit%E2%80%99&anti_cache=1467643605842



> **Uztailaren 21ean eta 22an egingo dute “Jarduera ekonomikoa ongizatearen berme” udako ikastaroa**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Politika Fiskal eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak antolatuta, uztailaren 21ean eta 22an eskainiko dute Miramar jauregian EHUren Udako Ikastaroen XXXV. edizioaren baitan “Jarduera ekonomikoa ongizatearen berme” izeneko ikastaroa.

Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidego osoan lortu nahi den ongizate-estatuaren ereduari buruzko hausnarketa egin nahi da ikastaro honetan, eta gizarte solidario bat izatera iristeko ekonomiak eta enpresek eragile gisa bete beharreko zereginari buruz eta aberastasuna banatzeko eta zerbitzu publikoei eusteko zergak ordaintzeak duen garrantziari buruz hausnartu nahi da, halaber.

Horrez gain, EHUrekin denboran luzatuko den lankidetzaren abian jarri nahi da, modu horretara, funtsezko zerbitzuen bidezko finantzaketan parte-hartze boluntarioa egin eta zerga-iruzurraren aurrean tolerantziarik eza erakutsi nahi da printzipioak gizarte gipuzkoarraren balio gisa barne hartzeko eta indartzeko.

Informazio gehiago:

<https://www.uik.eus/eu/node/645/pdf>



KOHESIO-POLITIKA

> 2007-2013 aldiko Kohesio Politikaren ebaluazioko lehen emaitzak

Sofian (Bulgaria) egindako Ebaluazioaren Europako 7. Konferentziaren baitan, Eskualde Politikarako komisarioak, Corina Crețu-k, gogorarazi du Kohesio Politikaren ebaluazioak nabarmen laguntzen duela politika horren etorkizunari buruzko gogoetan.

Egiten ari diren ebaluazioaren hasierako emaitzen arabera, Batzordea gaur egun administrazioaren sinplifikazioa, malgutasuna eta gaitasuna areagotzen eta inbertsioen errendimendua ugaritzen oinarrituta dago. Era berean, 2020. urtearen ondorengo esparrua du bere ikuspegiaren atean.

2007-2013 aldirian, Kohesio Politikako funtsei esker, Europar Batasun osoan milioi bat lanpostu sortzen lagundu da, zuzenean gutxi gorabehera 250.000 ETEri finantzaketa emanda.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/en/policy/evaluations/conferences/evaluating-effects/#2



> **Akitania-Euskadik unibertsitateko ikasleentzako Euroeskualdeko beken deialdi berria aurkeztu du**

AECT Akitania-Euskadi Euroeskualdeak Akitaniako Unibertsitateen eta Zentroen komunitatearekin duen lankidetzaren baitan, unibertsitateko ikasleentzako Euroeskualdeko beken lehen edizioa aurkeztu du.

Beka-programa horrek AECT Akitania-Euskadi Euroeskualdearen Plan Estrategikoak ezarritako ildoak garatzen du Euroeskualdeko unibertsitateko ikasleen mugigarritasun akademikoari laguntza emateko.

Lehen edizio honetan, Akitania-Euskadi beken helburua batez ere 2016-2017 unibertsitateko lehen seihilekoan Akitanian dauden unibertsitate-zentroetara joateko Euskadiko ikasleen mugigarritasuna finantzatzea izango da. Programaren hartzaille potentzialak gradu mailako ikasleak (bigarren ikasmaitatik aurrera) edo masterrekoak izango dira.

Aurrez ikusitako gehieneko diru-laguntza kopurua 13koa izango da (hilean 300 euro lauhileko batean) eta beka jaso duten ikasleek finantza-laguntza hori jaso ditzaketen beste laguntza batzuekin bateratu ahal izango dute.

Informazio gehiago:

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/eu/apel-a-candidatures-bourse-euroregionale-aquitaine-euskadi/>



> **Akitania-Euskadi 2016ko lehen deialdian hautatutako proiektuen zerrenda argitaratu eta deialdi berria kaleratu dute**

Akitania-Euskadi laguntzen deialdien helburua Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitania eskualdeko Limousin-Poitou-Charentes lurraldeko erakunde sozio-ekonomikoen arteko lankidetzak-ekintzak bultzatzea da pertsona juridikoen, publikoen edo pribatuen arteko proiektu komunak bideratzeko.

Lehen deialdia apirilean kaleratu zuten eta haren helburua mugaz bestaldeko proiektuei laguntza ematea izan da gai hauekin lotuta: kultura, hezkuntza, gazteria, herritarrak, kirola eta eleaniztasuna. Ekainaren erdialdean ezagutarazi dituzte lehen deialdian hautatutako 19 proiektuak. Horien guztizko zenbatekoa 250.000 milioi eurokoa izan da.

Emaitza horiek argitaratzearekin batera, Euroeskualdeak 2016. urteko bigarren deialdia ireki du. Bigarren deialdiaren helburua metodo, produktu edo zerbitzu berritzaileen garapen-proiektuak bizkortzea eta areagotzea da eragile nagusiak "Euroeskualdeko lankidetzak estrategikoen" inguruan elkartuta: unibertsitateetatik hasi eta enpresara arte.

Laguntzen bigarren deialdiak lantzen dituen esparru tematiko nagusiak dira hauek: nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria, energia berriztagarriak, eta itsasoko eta itsasertzeko baliabideak.

Bigarren deialdiaren guztizko zenbatekoa 200.000 eurokoa da. Hautagaitzak aurkezteko epea 2016ko uztailaren 28an amaituko da.

Informazio gehiago:

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/eu/les-appels-a-projets/appel-a-projets-en-cours/>



> Abian da inbertsio-proiektuen Europako ataria

Europako Batzordeak Inbertsio Proiektuen Europako Ataria sortu du EBko proiektuen sustatzaileen eta mundu osoko inbertsiogileen arteko zubi bihurtu eta EBko inbertsio-aukeren aprobetxamendua bidera eta bizkor dezan.

Web atariak EBko inbertsio-aukerak ikusgai jartzen lagundu nahi du, formatu harmonizatuaren eta egituratuaren bidez, proiektuak sustatzeko plataforma zentrala eskainita. Europarako Inbertsio Planaren baitan dago eta EBn inbertsio-jarduera suspertzeko Batzordeak abian jarritako bideetako bat da.

Hala, ataria Europako proiektuen inguruko sustatzaileak (EBkoak zein beste herrialde batzuetakoak) biltzen dituen onlineko plataforma da eta mundu osoko inbertsiogileentzako erakusleiho moduan funtzionatzen du.

Atariaz gain, Europako Batzordeak, Inbertsioen Europako Bankuarekin batera, Inbertsiorako Aholkularitzako Europako Zentroa jarri du abian. Proiektu pribatu eta publikoetako sustatzaileei laguntza teknikoa eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen dizkie.

Informazio gehiago:

<https://ec.europa.eu/eipp/desktop/es/index.html>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> **INSTANT1EANek, Gazteria eta Kultura Departamentuaren ekimenak, Erasmus+ programaren laguntza jaso du**

INSTANT1EAN Gipuzkoako nerabeei zuzendutako programa da eta teknologia berrien erabilerarekin lotutako arriskuen prebentzioa du xede. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteriaren Zuzendaritzak eta lurraldeko gaztelekuek bultzatutako proiektua da eta horren helburua nerabeekin batera pentsamendu kritikoa eta eztabaida-prozesuak bultzatzea da. Horren bidez, baliabide mota horiek erabiltzen dituztenean portaera eta jokabide egokiak barneratzen lagundu nahi die, Interneten portaera egokia izaten ikasi eta sareko betebeharrak eta eskubideak zein diren uler dezaten. Programa 13 eta 17 urte arteko gipuzkoarrei zuzenduta dago.

Gainera, INSTANT1ean ekimena Erasmus+ programaren baitan hautatu dute. Horri esker, beste herrialde batzuetako gazteekin egindako trukearen bidez, jarduerak garatu ahal izango ditu.

Hala, Gipuzkoako gaztelekuak Europako programetara gerturatuko dira, lurraldeko gazteei beste kultura batzuk ezagutzeko eta errespetatzen ikasteko aukera eskaintzeaz gain. Gainera, esperientzia horren bidez, programan parte hartzen duten nerabeek Sarearekiko ikuspegi kritikoa garatu eta komunikazio-gaitasunak beste herrialde batzuetako gazteekin aberastu ahal izango dituzte.

Truke horretan, 14 eta 17 urte arteko 30 gaztek hartuko dute parte: haietako erdiak Wiesbaden-ekoak dira, eta beste hamabostak Gipuzkoakoak. Alnstant1ean proiektuan parte hartu ostean, hiru gaztelekutako erabiltzaileen artean hautatu dituzte horiek.

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoangazte.eus/eu/gure-programak/instant1ean/zer-da>



> Donostia 2016 ekimenak Europako kultura-proiektuak aurkezteko moduari buruzko ikastaroa antolatu du

Donostia 2016 kultura-hiriburutzaren bulegoak antolatutako kultura-kudeaketa hobetzeko ikastaroen baitan, Europako proiektuei eta kultura arloko diru-laguntzei buruzko ikastaroa antolatu dutela iragarri dute.

Ikastaroak bi eguneko iraupena izango du (uztailaren 6an eta 7an egingo da Donostiako Aiete parkean) eta Europa Sortzailea programako alderdi nagusiak ezagutaraziko dituzte bertan. Gainera, lankidetzeta-proiektuak sortzeko eta Europako sareak sortzeko moduari buruzko urratsak eskainiko dituzte.

Europa Sortzailea ekimena 2014-2020 aldirako Europar Batasunak kaleratutako deialdia da. Horren helburua kultura eta sormen arloak 1.460 milioi euroekin laguntzea da. Beste nolabait esanda, kulturaren, zinemaren, arte eszenikoen eta antzeko beste esparru batzuen arloan lan egiten duten eragileentzako eta profesionalentzako finantzaketa-iturri paregabea da.

Informazio gehiago:

<http://dss2016.eu>



> **Merkataritza-ganberek Global Training-eko 50 beka eskainiko dituzte Euskadiko gazteak atzerriko enpresetan trebatzeko**

Hiru merkataritza-ganberek (Eusko Ganberak) Global Trainingeko 50 beka kudeatuko dituzte 2016. urtean. Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak ematen ditu eta Euskadiko gazteek mundu osoko enpresa eta erakunde publiko eta pribatuetan praktikak egitera bideratuta daude.

Global Training Programa autonomia-erkidegoko gazteen mugikortasun transnazionala bultzatzera bideratuta dago haien profil akademikoarekin eta profesionalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak egin ditzaten atzerriko herrialdeetako enpresetan eta erakundetan aurrez ezarritako prestakuntza-planaren arabera.

Beka horiek gazteen arteko nazioartekotzea bultzatzen laguntzen dute jarduera profesionalarekin lotutako politiken bidez. Era berean, kohesio ekonomikoa eta soziala bultzatzen dute eragile ugariaren arteko lankidetzaren bidez eta gaztearentzako eta enpresa hartzailearentzako onura sortuta. Bestalde, beste herrialde batzuetan praktikak egiteko aukerak nazioarteko ikaskuntza praktikoaren rola sendotzen du honako hauek sortzen laguntzeko: herritarrak, ezagutza, kulturarteko elkarriketa eta beste herri eta kultura batzuekiko irekiera.

Informazio gehiago:

<http://www.camaragipuzkoa.com/es/formacion/formacion2/becas-global-training-2/global-training>



> Eusko Jaurlaritzak Europan azaldu du espezializazio adimentsurako RIS3 Euskadiko Estrategiaren hedapena

Europako Batzardeak ekainaren 1erako eta 2rako Bruselan antolatutako "Smart Regions" maila goreneko konferentziaren baitan, Eusko Jaurlaritzak Espezializazio Adimentsuko RIS 3 Estrategiaren hedapeneko aurrerapenak azaldu ditu (Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana).

Konferentzia horretan, gainera, modernizazio industrialeko eta nekazaritzako elikagaien arloetako espezializazio adimentsuko plataformak kaleratu dituzte ofizialki. Horiek lehendik energia arloan zegoenari gehitu behar zaizkio. Plataforma horien bidez, inbertsio bateratuko lankidetzak sortzeko Abangoardiako Ekimenak garatutako metodologia jasoko da Europa mailan.

Maila Goreneko Konferentzia horrekin batera, Batzardeak erakusketa antolatu du. Bertan, Euskadik, Europako hogeita hamar eskualde ingururekin batera, bere RIS3aren garapenari eta proiektu enblematikoei buruzko dibulgazioko standak izan du erabilgarri. Erakusketa horren bidez, Europako, beste herrialde batzuetako eta Europako eskualdeetako erakundeetako ordezkariekin zein industriako eta mundu akademikoko eragileekin elkarri eragiteko aukera izan dute.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/33144-gobierno-vasco-posiciona-por-liderazgo-despliegue-estrategia-ris-especializacion-inteligente-pcti-2020>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **EBko egungo arriskuak: desberdintasun sozioekonomikoak, politikoak, fiskalak... (Eurobask)**

Argitalpen horrek 2015eko 15ean, 16an eta 17an EBko egungo erronkak landu zituzten adituen hitzaldi guztiak jasotzen ditu. Hitzaldi horiek EHUren Udako Ikastaroen XXXIV. edizioan Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak, EUROBASKek, antolatutako udako ikastaroen baitan eskainitakoak dira.

Informazio gehiago:

<http://www.eurobask.eus/wp-content/uploads/2016/02/PeligrosActualesUE.pdf>

> **2007-2013 aldiko Kohesio Politikaren ebaluazioko emaitzak (Europako Batzordea)**

Infografia horrek 2007-2013 aldirian Europako Batzordearen Kohesio Politikak Europako gizartean eta enpresetan izandako inpaktua eta emaitza nagusiak biltzen ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/evaluation/pdf/expost2013/ex_post_infographic_en.pdf



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **1305/2013 Araudiko (EB) 35. artikuluan aurrez ikusitako lankidetzarako laguntzen deialdia, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (FEADER) bidez landa-garapenerako laguntzari buruzkoa (+ info)**
- **Europarren eskubideak, diskriminaziorik eza, eta intolerantziaren aurkako borroka eta prebentzioa (REC-DISC-AG-2016) (+ info)**
- **Akitania-Euskadi Euroeskualdeko deialdia (2016ko 2. deialdia). Gaiak: nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria, energia berriztagarriak, eta itsasoko eta itsasertzeko baliabideak (+ info)**